

Hiriburutza-urtearen inaugurazioa hastear da

Danborraren lehen tarrapatarekin emango zaio hasiera Donostia 2016ren inaugurazio-ekitaldien festari.

Hasiera ofiziala urtarrilaren 23an izango da, 18:00etan, Donostiak 2016ko Europako Kultur Hiriburu titulua ofizialki jasoko duen erakunde-ekitaldearekin. Autoritate ugari izango da Victoria Eugeniako ekitaldi honetan.

Hiria dagoeneko prest dago 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren inaugurazio-agendari irteteko pistola-tiroa emateko, San Sebastian Egunari hasiera ematen dion Banderaren Igoera tradizionalarekin bat etorriz.

Gauerdian danborradak Banderaren Igoera berezi batekin ekingo dio, Donostiako Orfeoiaren laguntzarekin. Hirikoarekin batera jasoko dira Europako bandera, Wroclawekoa eta Donostia 2016ren irudia daukana.

Aurten, gainera, danborradan presentzia berezia izango dute hiriko zazpi zonek eta horietako bakoitzari dagokion konpainiari ospakizun-danbor berezi bat emango zaio. Auzoetara eramango dute danbor hori ospakizunak irauten duen 24 orduetarako, ohiz kanpoko gertaeraren ikur bezala.

Igoera-ekitaldia Kresala dantza-taldeak biribilduko du, eta inguruak berak ere lagunduko du hasiera berezi horretan, Konstituzio plaza inguratzen duten hiru balkoi-lerroetan oihal zuriak eta urdinak kokatuko baitira.

Plazakoa amaitzen denean, ohiko ibilbideari ekingo diote danborradek eta, 2016ko senidetasun-espirituarri eusteko, hiru orduan behin, talde guztiek bat egin eta bateratsu joko dute *Iriyarena* pieza.

Modu horretara, danborradak emango dio hasiera Donostia 2016ren inaugurazio-ekitaldiek osatuko duten festari. Guztira 80 ekintza baino gehiago jasoko dituen diciplina anitzeko egitarau zabal hau prestatzen hiriko ia 50 eragilek hartu dute parte, besteak beste, kontzertu-aretoak, klubak, arte-galeriak, museoak, elkarte artistikoak, jaialdiak eta hiriko bestelako eragile batzuk ere bai.

Inbestidura-ekitaldi ofiziala

San Sebastian Eguna Hiriburutzaren festa-egutegiaren hasiera izango bada, hasiera ofiziala Victoria Eugenia Antzokian izango da urtarrilaren 23an, larunbata, 18:00etan gertatuko den erakunde-ekitaldian. Bertan, Europako Batzordeko ordezkari batek Donostiari 2016ko Europako Kultur Hiriburu izaera bermatuko dion plaka bat entregatuko dio modu ofizialean.

Une honetan Donostia 2016 Fundazioa babesten duten erakundeek izango dute protagonismo osoa. Bertan izango dira honako ordezkari instituzionalak: Eneko Goia, Donostiako alkatea; Iñigo Urkullu, lehendakaria; Iñigo Méndez de Vigo, Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroa; Markel Olano, diputatu nagusia; eta Martine Reicherts, Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura sailetako zuzendari orokorra. Horrez gain, DSS2016EU proiektuaren ordezkariek ere hartuko dute hitza: Pablo Berásteguik, Donostia 2016ren zuzendari orokorrak; eta Xabier Payak, Donostia 2016ren kultur programaren zuzendariak.

Galak zati artistiko bat ere izango du, eta Patxi Barco aktore, zuzendari eta errealizadoreak prestatu du. Bere zuzendaritzapean, ekitaldiaren parte izango dira musika- eta dantza-emanaldiak, eta baita arte plastikoen erakustaldi bat ere. Horietarako, Barcok honako artisten parte-hartzea izango du: Demodé Quartet, Txema Esteban, Kukai Dantza Taldea eta Clara Muñoz eta Maialen Egiazabal biolontxelo-jotzaileak.

Beharrezkoa izango da akreditazioa izatea erakunde-ekitaldi honetara joan ahal izateko.

Arranca la inauguración del año de Capitalidad

El primer redoble de tambor marcará el inicio festivo de los actos inaugurales de San Sebastián 2016.

El inicio oficial tendrá lugar el 23 de enero, a las 18:00, en el acto institucional de investidura de San Sebastián como Capital Europea de la Cultura 2016, que contará con la participación de numerosas autoridades.

La ciudad ya se está preparando para dar el pistoletazo de salida a la agenda inaugural de la Capitalidad Europea de la Cultura 2016, que se hará coincidir con la tradicional Izada de la bandera que da inicio al Día de San Sebastián.

A medianoche la tamborrada emprenderá su jornada con una Izada especial, con la participación del Orfeón Donostiarra, en la que se izarán, junto con la local, las banderas de Europa, la correspondiente a Wrocław y la de San Sebastián 2016.

La tamborrada cuenta este año con la especial implicación de las siete zonas o barrios de la ciudad y a cada compañía se le hará entrega de un tambor especial que se llevará a cada barrio para toda la jornada, como testigo de un evento tan destacado.

Rematará el acto de Izada la participación de la compañía de danza Kresala, en la misma plaza de la Constitución, que se engalanará para la cita con lienzos blancos y azules a lo largo de toda la balcónada.

Acto seguido, la tamborrada iniciará su habitual recorrido, que tampoco estará exento del espíritu de unión y fraternidad del 2016 porque, a lo largo de sus 24 horas de duración, todas las compañías interpretarán al unísono la pieza *Iriyarena* cada tres horas.

De esta manera, la tamborrada marcará el inicio festivo de unos actos inaugurales que se prolongarán desde el mismo día 20 hasta el 24 y que contarán con más de 80 actividades. En la elaboración de esta amplia programación multidisciplinar han participado casi medio centenar de salas de conciertos, clubes, galerías de arte, museos, asociaciones artísticas, festivales y demás agentes culturales de la ciudad.

Acto oficial de investidura

Si el día de San Sebastián supondrá el comienzo festivo de la Capitalidad, el inicio oficial tendrá lugar en el acto institucional que el sábado, 23 de enero, el Teatro Victoria Eugenia acogerá a las 18:00. En dicho evento, San Sebastián recibirá de manera oficial de manos de una representante de la Comisión Europea la placa que acredita su condición de Capital Europea de la Cultura 2016.

Este será el momento en el que las instituciones que respaldan la Fundación San Sebastián 2016 tomarán el protagonismo. Intervendrán en este acto Eneko Goia, alcalde de San Sebastián; Iñigo Urkullu, lehendakari; Iñigo Méndez de Vigo, ministro de Educación, Cultura y Deporte; Markel Olano, diputado general; y Martine Reicherts, directora general de Educación y Cultura de la Comisión Europea. Además tomarán la palabra Pablo Berástegui, director general de San Sebastián 2016, y Xabier Paya, director del programa cultural de San Sebastián 2016.

La gala tendrá una parte artística que ha sido dirigida por el actor, director y realizador Patxi Barco. Bajo su dirección, se incorporarán al evento actuaciones musicales, de danza y de artes plásticas, que contarán con la participación de Demodé Quartet, Txema Esteban, Kukai Dantza Taldea y las chelistas Clara Muñoz y Maialen Egiazabal.

Será necesario estar en posesión de una acreditación para poder acudir a este acto institucional.